

Klara Badiola ■ Aktorea

«Lorerik eta landarerik gabe, etxea oso tristea izango litzateke»

Klara Badiolak oso gustuko ditu loreak eta landareak. «Askotan, landare bat oso polita ikusi eta gustura erosiko nuke, baina pena ematen dit, kanpoan denbora asko egin behar dudalako eta ezingo nukeelako zaindu. Horregatik ez daukat landare askorik, baina batzuk bai».

Geranioak eta beste hainbat landare mota dauzka Klara Badiola aktoreak. Denak bere etxean. Landareak zaindu egiten ditu, «baina askorik ere ez», onar-

tu digu Badiolak: «Ura botatzen diet, eta kasu pixka bat egiten diet». Hitz egiten die bere landareei, eta baita mimoak egin ere. «Hitz egin gutxi, baina 'ez dakit zer' eta 'badakit zer' esaten diet».

Landareak loratzen ikustea atsegin du Klara Badiolak. «Oso gustukoak ditut landareak», azpimarratu digu. Bere etxea landare eta lorarik gabe ez litzateke etxe bera izango esan digu. «Oso tristetia izango litzateke».



EDURNE KOCH

■ Klara Badiola aktoreak sarritan ezin ditu erosi gustuko landareak, bere lana dela-eta ezingo bailituzke zaindu.



NAGORE KOCH

Xebe Diez ■ Aktorea

«Krabelin edo arrosa horiak bidaltzen dizkiot jendeari»

Xebe Diez aktore eta aurkezleak oso lore eta landare gutxi ditu. «Ez ditut landatzen», esan dio EGUNKARIARI. Lorontzietan, bertako landareak dauzka, mendikoak, «hemen hartzen ditudanak». Izan ere, Xebe Diez mendian bertan bizi da, baserri batean.

Landare loredun gutxi dauzka Xebe Diezek. «Loredunak gutxi, zaindu egin behar baitira; gainera, ez zait iruditzen oso naturala. Bertan ateratzen direnak bai, baina lorategietan loreak ematen dituztenak ez. Adibidez, kala basatiak dauzkat, ateratzen direlako, bestela, udareak, sagarrak, gereziak eta kiwiak dauzkat, eta landare horiek ere ematen dituzte loreak. Orain, udaberrian, agian adartxo

loredun bat hartzen dut etxean jartzeko».

Mihura eta beste hainbat landare ere badauzka baserrian. «Loreak ematen dituzten beste zuhaixka batzuk ere badauzkat, eta horiekin ere, agian adartxo bat hartu eta etxean jartzen dut, baina gutxi».

Loreak gustuko ditu, «pixka bat bai, baina asko ez», onartu digu Xebe Diezek. «Krabelin edo arrosa horiak bidaltzen dizkiot jendeari. Argi asko daukatenez, lore hauek nahiago ditut». Krabelin edo arrosa hori sorta bat opari ederra da, Xebe Diezen aburuz: «Sorta bat, dozena bat edo bi dozena, kasu bakoitzaren arabera».



Jardingintza Zentroa

Astelehenetik larunbatera

10:00etatik 13:00etara eta

16:00etatik 20:00etara.

Igandeetan 10:00etatik 14:00etara.

Erakusketa

Arrasate - San Prudencio errep.

Tel.: 943 79 55 46 • Faxa: 943 79 50 03




LORAK eta LANDARAK

Tel eta Faxe: 94 631 92 26

Garakoi, z/g

IGORRE



Ganboa

Lorazaintza orokorra - Mota guztietako itxiturak - Jokoak

Larraburu baserria - 20115 ASTIGARRAGA

Tel.: 943 33 07 73 - Faxa: 943 33 07 74